



Erakundeak prest al daude gizartean duten eragina neurtzeko?

Medición del impacto en las
organizaciones sociales



DIÁLOGOS & APRENDIZAJES

Martxoak 21 de marzo/ 10:00
Basurtuko Udaltegia
Centro Cívico Basurto

Gogoeta esparrua

Gure erakundeetan, ohikoa da planekin, estrategiekin, kudeaketako sistema estandarizatuekin, aginte-koadroekin, emaitza-adierazleekin eta asebetetze-adierazleekin lan egitea. Gauza bera gertatzen da berrikuntza soziala, partaidetza eta gizarteari egindako ekarpena hizpide izateari dagokionez. Inpaktua hitzak ere, bere horretan, erakunde askoren jarduerari balioa emateko erabili nahi izan dugun kontakizunean bere tokia izan du. Orain arte, inpaktua suposatzen zen, baina erakundeetako ohiko neurketako eta kudeaketako dinamiketarik urrun samar geratzen zen zerbait zen.

Aspalditik, ohiko bihurtu da erakundeetako lanaren “inpaktua kudeatzeak eta neurtzeak” duen garrantzia hitz egitea, baina oraindik ere ez dugu kontzeptualki ondo mugatuta zer den “inpaktua”, ez eta metodologikoki antolatuta ere nola kudeatu edo neurtu behar dugun inpaktu hori. Suposatu beharrean, erakutsi egiten den zerbait dela ulertzen hasi gara. Baina, horrez gain, kontuak eman behar zaizkion gizarte baitan, aspirazio bat ere bada. Izan ere, inpaktua kudeatu eta neurtzeak zerikusi handiagoa du pertsonen, taldeen eta, oro har, gizartearen bizitzan gertatzen diren aldaketa erreal eta zehatzekin, idazmahai, bulego eta lantokietan artifizialki eraikitako kudeaketa-sistema konplexuekin baino. Agian, galdera hau egin beharko genioke geure buruari: zergatik deitzen diogu inpaktua benetan aldaketa denari?

Gaiari buruz ezagutza eta esperientzia handia duten bi gonbidaturekin hitz egingo dugu:

- [Bárbara Calderón](#). Ezagutza Sortzeko Arloko koordinatzailea. Eragin Sozialeko Katedra, Comillaseko Unibertsitate Pontifikala. Madril
- [Charles Castro](#). ECODESeko Eragin Soziala Ebaluatu eta Neurtzeko zuzendaria. Zaragoza

 **Basurtuko Udaltegia (Zankoeta, 1. Bilbo).**

 **Martxoak 21, osteguna**

 **10:00 – 11:30**